

## Hezkuntzarako COVID-19 koordinazio batzorde teknikoa

### 3. BILERA.- IRAILAREN 30a, ASTEAZKENA

#### PARTE-HARTZAILEAK:

Nafarroako Eskola Kontseiluko Hezkuntzarako COVID-19 koordinaziorako lan-batzordeak 3. bilera egin zuen 10:00etan Nafarroako Eskola Kontseiluko bilkura-aretoan, han zirela Hezkuntza Departamentuko ordezkari guztiak (Eneko Ardaiz Azpiegituren Zerbitzuko zuzendaria, Luis Calatayud Informazio Sistemen Zerbitzuko zuzendaria, Alberto Urrutia Ikuskapen Zerbitzuko zuzendaria), Osasun Departamentukoak (Arantxa Legarra, Osasun Komunitarioa Sustatzeko Zerbitzutik, eta ez da etorri Aurelio Barricarte, Epidemiologiaren eta Osasun Prebentzioaren Zerbitzukoa), Batzorde Iraunkor osoa (Antonio Iriarte, idazkaria; Jorge Lanchas, ikastetxe pribatuetakoko entitate titularren ordezkaria; LABeko Mikel Lizaso, ikastetxe publikoetako irakasleen ordezkaria, STEILASEko Arantxa Ruiz Vidorretarekin batera; FSIE-SEPNAko Laura Sanzol, ikastetxe itunduetako irakasleen ordezkaria; Herrikoako Maria Rodriguez, ikastetxe publikoetako guraso-elkarteen ordezkaria; eta CONCAPAko Eduardo Mayor, ikastetxe itunduetako guraso-elkarteen ordezkaria), eta ez da etorri M<sup>a</sup>Lourdes García Roncal, Unibertsitateko Zerbitzukoa. Buru, Manuel Martín NEK-ko burua.

#### Gai-zerrenda:

1. Zertan diren une honetan ikastetxeetako kasu aktiboak.
  2. Zuzendaritzen eta batzordeko kideen informazio berriak.
  3. Jarduera presentziala burutzeko proposamenak. Proposamen pedagogiko eta metodologikoak.
  4. Kontingentzia Plana eguneratzeko proposamenak.
- 
1. Zertan diren une honetan ikastetxeetako kasu aktiboak.  
  
Egiaztatu da ikastetxeak eremu seguruak direla; Osasun Departamentuaren informazioaren arabera, ez da ia ikaslerik kutsatzen ikasgela barrenean. Komeniko litzateke zehaztea zein den positiboen ehunekoa konfinatuekiko, eta lehen eta bigarren hezkuntzako ikasle guztiekiko, Osasun Departamentuak emandako datuetan oinarrituta.
  2. Zuzendaritzen eta batzordeko kideen informazio berriak.
    - a. NOPLOIk helarazi du ministerioarekin 2020-9-29an egindako bileraren edukia, eta horretan, honako gai hauek argitzen dira.
      - COVID arduradunak ikastetxean dituen eginkizunak eta haren prestakuntza (badirudi zenbait autonomia-erkidegok dagoeneko egin dutela prestakuntza hori).
      - Ikastetxeetan auzitan dauden lege kontuak PCRak eta ikasleen maskarak direla eta. Familiek PCRari uko eginez gero, erabaki da berrogeialdia handitzea. Maskarari dagokionez (ikasleak ez badu ekarri edo ez badu balio, puntuzkoa delako edo balio ez duen beste material batekoa), ikastetxean

egokia den bat emanen zaie. Osasunetik araudiaren bidez konpondu beharreko kontua da.

- Absentismoa: Absentismo-espedientea eten dezaketen 3 kontu daude:
  - Ikasle eta/edo familia kalteberak.
  - Beldur handia.
  - Errepikapena.

Lanean ari dira bai Hezkuntza bai Osasuna, ikastetxeetara joatetik salbuesten duen araudia ahalik eta zehatzen xedatzeko.

- Osasun Departamentuak berretsi du eskolako agerraldiak oso txikiak direla, familia-eremutik etorritakoak.
- b. Laura Sanzolek, Iraunkorreko kidea bera, ikastetxe itunduetako irakasleen ordezkari gisa, eskatu du Osasun Departamentuak baloratu dezala zer-nolako eragina izan dezaketen positibo kopuruan bigarren hezkuntzako bazkariak, ikasle horiek eskola-eremutik ateratzen baitira, eta ez baitituzte mantentzen bizikidetzataldeak, ez eta, segur aski, distantziak ere.
- c. Hezkuntza Departamentua:
- i. Ikuskaritza:
    - a. Ikastetxeetako kontingentzia-planak zehatz-mehatz gainbegiratzen ari gara, eta ikusten ari gara horiek zehaztasunez eta gogobetetasun handiko emaitzekin gauzatzen ari direla.
    - b. Osasunarekin adostu behar da ikasle eta familia kalteberei buruzko araudia. Ikastetxeek ezin dute gai hori ebatzi.
    - c. Behar bezalako mediku-justifikaziorik gabe ikastetxera ez joateagatik plaza galtzea araudian jaso daiteke eta jaso behar da.
  - ii. Azpiegiturak:
    - a. Udalei txostena eskatu zaie ea ikastetxeetan garbiketa-protokoloa betetzen den, eta baieztatu da ia denek betetzen dutela.
    - b. Materialak banatzeko bigarren sorta bat egin da, batez ere gelarena, horren kontrolerako inprimakiarekin batera, produktu horren erabilera zehaztugabea ikusten baita.
    - c. Hezkuntza bereziko ikasleentzako materialei dagokionez, adierazi du oraindik ez dagoela ikasle sorrentzat homologatutako maskararik, nahiz eta horretan lan egiten jarraitu.
    - d. Ikasleek mahaiak garbitzeari dagokionez, ez dago NOPLOIk horretarako baimendutako produkturik, ura izan ezik. Baimen berrien zain gaude.
  - iii. Informazio Sistemen Zerbitzua:
    - a. Osasunarekin lanean ari gara familiekiko eta zentroekiko komunikazioak hobetzeko, bai positiboak daudenean, bai konfinazioak daudenean.

- b. Osasun Departamentuak jakinaraziko die ikastetxeei (edo kontaktuen jarraipen-taldeak) positiboa eta zein ikasle dauden konfinatuak.
3. Jarduera presentziala burutzeko proposamenak. Proposamen pedagogiko eta metodologikoak.
- Ez dago proposamen pedagogiko eta metodologikorik.
  - Jorge Lanchasek, ikastetxe pribatuetako entitate titularren ordezkariak, eskatu du hobetu dadila COVIDaren ondoriozko irakasleen ordezkapena, izan dadila azkarragoa, eta itunpeko hezkuntza har dadila kontuan publikoa adina.
  - Beraz, agintari eskudunei Lehen Hezkuntzako ikasleen kontaktu estuaren izaera aldatzeko eskaera, irizpide epidemiologikoetara mugatuta eta bizikidetza egonkorreko taldeen kontzeptua alde batera utzita, PCR kopurua eta berrogeialdiak behar-beharrezkoak diren horietara murrizte aldera. **OSASUNAK XEDATU BEHAR DU Lehen Hezkuntzan gela osoa ez konfinatzeko.**
  - Laura Sanzolek Osasunari galdetu dio ea Lehen Hezkuntzako bazkaria Bigarren Hezkuntzakoarekin modu eta forman parekatu daitekeen. Baloratuko du Osasunak.
  - Goiztiarren gelarako Hezkuntzak egindako proposamena hurrengo bilerarako utzi da, Herrikoak proposatu baitu talde egonkorren araudia jangeletan bezala hartzeko kontuan, eta ez 4 m<sup>2</sup>-ko gutxieneko azaleraren arabera. Hori guztia egingen da Osasunak horri buruz prestatuko duen txostenarekin, eta Osasunak konpromiso hori hartu du.
4. Kontingentzia Plana eguneratzeko proposamenak.
- **Aho batez onartu da Hezkuntzak eskolaz kanpoko jardueretarako egindako proposamena.**
  - Herrikoaren proposamenak:
    - i. Haur hezkuntzan eta lehen hezkuntzan harreman estutzat jotzen diren ikasleen berrogeialdia.** Proposatu dute berrogeialditik salbuestea aurreko 6 hilabeteetan PCR bidez baieztatutako koronabirus infekzioa izan duten edo IgG positiboa duten ikasleak. Eta hori, DBHko 1. mailatik aurrerako ikasleentzat jasotako salbuespenarekin analogiaz jokatu. Printzipioz, uste dugu immunitate-maila ez dagoela adinaren mende, eta, horregatik, proposamen hau egiten dugu. **AHO BATEZ ONARTU DA.**
    - ii.** Konfinatutako ikasleak ikastetxera itzultzea. Gaur egun, ikastetxera pixkanaka itzultzen dira, familia bakoitzak bere seme edo alabari egindako PCRaren emaitza negatiboa eskuratu ahala. Egoera horrek ezegonkortasuna eragiten du ikasgelan; izan ere, denbora batez ikasle batzuk ikasgelan egoten dira eta besteak etxean. Egoera hori saihesteko, proposatu dute berrogeialdiko 9. egunean PCR bat egitea eta emaitzak Educaren bidez (edo beste bitarteko baten bidez) bidaltzea ikastetxera; horrela, Hezkuntzatik (arduraduna nor den zehaztu beharko da) familia guztiei mezu elektronikoa bidaliko zaie, eta adieraziko zaie “x” egunetik aurrera ikastetxera itzul



daitezkeela. Horrela, ikastetxeek bermea izanen dute itzultzen diren ikasleek PCR negatiboa dutela, eta, garrantzitsuena, irakaskuntza-jarduera modu uniformean antolatzen ahalko dute ikasle guztientzat. Era berean, proposatu dute puntu honetan baloratzen ahal dela hauxe: talde bat konfinatzean, bidaltzen zaion emaitzean adierazi dadila konfinatua dagoela eta data jakin batean (konfinamendu-aldiaren ondorengo data batean) gelara itzuli ahal izanen dela, PCRa positiboa izan ezik. **Osasun Departamentuak erantzun du saiatuko direla talde osoari PCRa aldi berean egiten eta hala pixkanakako itzulera horiek saihestu, komunikazioak hobetzeaz gain. AHO BATEZ ONARTU DA.**

- iii. Proposatu dute protokoloak ahalik eta zehatzen betetzea, familiek eta ikastetxeek eragozpenik eta gaizki-ulerturik izan ez dezaten. **AHO BATEZ ONARTU DA.**
- iv. Ikastetxeetako transmisio-maila aztertzeko proposamena. Garrantzitsutzat jotzen dute, COVID-19ari gehituko zaizkion urteroko beste birus batzuen ugalketaren ondorioz osasun-sistemak gainezka egin aurretik, COVID-19aren transmisio-maila aztertzea gure ikasleen artean. Lehen Hezkuntzako 1. mailatik aurrera, ikasle guztiak maskarekin joaten dira, eta badirudi horrek kutsatze-maila neurri batean murriztu dezakeela. Egungo protokoloaren arabera, PCR bat egiten zaie ikasleei berrogeialdiaren hasieran eta beste bat amaieran. Lortutako datuak aztertzea iradokitzen dugu, talde egonkorreko ikasleak blokean konfinatzea komeni den edo hain murriztaileak ez diren beste bide batzuk erabil ditzakegun baloratzeko. Proposamena: balora badaiteke gela osoa ez konfinatzea transmisio-maila murrizta delako, iradokitzen dugu kasu positiboaren bizikidetzat talde osoari PCR bat egitea, emaitza positiboaren biharamunean. PCR horretan positibo emandakoek bakartuak jarraituko lukete, eta negatibo emandakoak itzul litezke ikastetxera. **ONARTZEN DA HAU GUZTIA HURRENGO BILERARAKO, OSASUNAREN TXOSTEN-AZTERLANAREN ZAIN.**

**Manuel Martín Iglesias**

Nafarroako Eskola Kontseiluko burua